

MAILEGUZKO HITZEZ

V. PUNTUA

5.1. Ozen + txistukari kontsonante multzoetan (“n”, “l”, “r” + “z”, “s”, “x”)

1. Euskaltzaindiaren ustez, hitz mailegatueta “z”, “s” eta “x” kontsonanteak “l”, “n” edo “r” kontsonanteen ondoren suertatzen direnean, “ts” eta “tx” idatzi beharko lirateke. Hala nola: “artxibatu”, “koltza”, “kontsonante”, e.a.

2. Alabaina, “z”, “s” eta “x” kontsonanteak “t” gabe idatziko dira honako kasu hauetan:

2.1. Hitz elkartuetan edo bi morfemaren junturetan, “supersoniko” hitzean ikusten den bezala.

2.2. Erdal izen berezietan eta berauen eratorrietan: “Engels”, “Samuelson”, “marxismo”, e.a.

2.3. Erdal erakunde, enpresa edo produktu-izen komertzializatueta: “Cinzano”.

2.4. Sigla lexikalizatueta: “Ensidesa”.

5.2. Bi sudurkari gertatzen direnean

Bi kontsonante horiek diferenteak direlarik, biak atxikiko dira: “amnistia” eta “himno”, besteak beste.

Donostia, 1985-II-22

Euskaltzaindiaren batzarrean onartua

VI. PUNTUA

Mailegu berrietan bi kontsonante oklusibo dituztela agertzen diren multzoak, edo ta ondoren sudurkaria edo (j) —latinez bederen—, daramatela

6.1. Euskaltzaindiaren ustez, kultur-hitz mailegatuetan *—k—* edo *—p—* baten ondoan *—t—* datorrenean *—kt—* edo *—pt—* idatzi behar da, hala nola *arkitekto*, *dialektika*, *kontzeptu*, eta antzekoak. Ahozko tradizio zaharrekoak direnean, ordea, aurreko kontsonante gabe eman daitezke, hala nola *frutu* / *fruitu*, *erretore*.

—d— baten ondoan *—b—* datorrenean *—db—* utziko da, latinez *—dv—* zena, hala nola *adberbio*.

2. *—k—* baten ondoan *—n—* datorrenean *—kn—*, hala nola *teknika*, *teknologia*.

—g— edo *—d—* baten ondoan *—m—* datorrenean *—gm—* edo *—dm—*, hala nola *sintagma*, *administrazio*.

3. *—d—* edo *—b—* baten ondoan (j) datorrenean —latinez bederen—, *—dj—* edo *—bj—* emango da, hala nola *adjudikatu*.

Lehenengo puntuan adierazi den moduan ahozko tradiziokoak direnean bide zaharrari eutsiko zaio.

Donostia, 1985-IV-26.

Euskaltzaindiaren batzarrean onartua.

VII. PUNTUA

Hiru kontsonantezko multzodun hitzak

“Hitz mailegatuek jatorriz hiru kontsonantezko multzoa dutenean bere baitan, euskarak ere hiru kontsonanteak gordeko ditu: hala nola, *institutua*, *konstituzioa*. Ez, ordea, euskara idatzian aspaldidanik erabili diren hitzek hizkera arrunteko esanahia dutenean: esate baterako, *istant(e)*, *sustantzia*.”

Iruñea, 1985-VI-27

Euskaltzaindiaren batzarrean onartua